

Kaxoi barruko istorioak...

A

ktore bila lur azpian ere... halaxe ibili naiz egun hauetan. Halaxe dabilta hainbat tokitan aktore euskaldunen bila. Hazia erein eta lurra jorratuz batera, ti-ta batean eguzkiratuko balira... –batzuek halaxe delako ustea dute–. Transgenikoekin konformatu errazak dira horiek, baina hala-koetan bihotz errerik ez zaigu faltako.

Ez. Ez gara horrenbeste. Euskaraz mintzatzen garen euskaldunok ez gara horrenbeste. Are gutxiago aktore euskaldunak eta adin batetik gorako aktore euskaldunak zer esanik ez: ea ez dira... Eskuko atzamarrez kontatzen dira. Hauxe gure patua!

Gure gizartea inoiz baino aitona-amonduegoa dagoen bitartean, errealitate hori fikzionatuko duen aitona-amonarik ez. Orain berrogei, berrogeita hamar urteren bueltan daudenak hirurogei noiz izango zain gaude denok. Eta zortea alde izan dezagula adin horietara iristean buruak oraindik egoki erantzuten badigu! Baina hori beste istorio bat da.

Zer egin bitartean adin horretako aktoreak behar dituzten antzerki lanekin? Euskaraz egiteari uko egin edo bestela aktoreak zahartu bitartean, kaxoian sartu lanak eta hantxe utzi eurak ere zahartzen? Hauxe historia petrala: nik ere adi-



DANI BLANCO

neko aktore bat behar nuen, ezaugarri zehatz batzuk beteko zituen, eta dauden bizpahiru-ekin hitz egin eta gero, ezinezkoa egin zait bat lortzea. Proiektuz josiak aurkitu ditut guztiak, itota lanean: Ezin dut... Ezin dut... Aldarean, senargaia noiz iritsiko zain dagoen emaztegaia sentitu naiz, agertu behar du!, amorrarazteraino agertu behar du, oihukatuz!

Istoria hau adibide soila besterik ez da. Ikus-entzunezko sektoreak ere egunero aurre egin behar dio arazari. Galdeiezu Goenkalen kastinak egiteko ardura dutenei, adibidez.

Hamalau urteko ibilbide luze honetan makina bat aktore pasa da bertatik. Azken bi urteotan, ordea, benetako arazoekin dabilta aktore berriak bilatzeko. Jose Mari eta Maria Luisaren urrezko garaiak. Nork beteko haiek utzitako hutsunea? Erronka ez da txikia. Eskuko atzamarrez konta daitezke daudenak eta badiotsuet, produktora eta antzerki talde ezberdinon artean bere biziko lehia dugu haiekin egiteko. Urrea balio dute gure fikziozko aitona-amonek. Urre gorria.

Eta bitartean, zilarrezkoak urre bihurtu bitartean, ikasten ahal dugula istorioetako aitona-amonak oporretara bidaltzen edo zeharo gor-mutuak egiten. Eguleko egongo ginen orain! ■



Euskaraz mintzatzen garen euskaldunok ez gara horrenbeste.

Are gutxiago aktore euskaldunak eta adin batetik gorako aktore euskaldunak zer esanik ez



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Haurren futbol lehiaketak, eta ez dira gutxi urtetan metatu izan ditudanak. Haurra nintzela, eskolakoak eta eskola artekoaz gain,

auzoa ordezkatzeko jokaturakoak oraindik fresko ditut gogoan. Eskolako taldeko fraide edo falangista arduradunei ezetz esaten goiz ikasi nuen, eta auzokoa hobesteak ekarriko zidan zigorrore aurre egiten hasi nintzen nire erabakien ondorioak onartzen. Zigorrorena orekatzeko beti izaten nuen auzoko lagun bera, eskolatik at bizia askatuagoa egiten laguntzen zidana, “nireagoa” zena, eskolako kideek, nekez ulertzen zutena. Geroztik askotan izan naiz parte holakotan entrenatzaile gisa,

Maite izan ditut

Miarritzen izan naiz horrelako batean. Hegoaldetik etorritako asko Iparraldekoen eta frantsesen aurka aritu ziren. Frantzia eta Espainia. Ez dut gogoratzen euskarazko hitz bat bera ere entzun izana. Eta dozena erditik gorako jende ikusi nuen haur onentsuenera xerka, izenak eta abizenak hartuz datozen urtetako jokalaririk errolda osatu nahian hauen gurasoen kilikagarririk. Espekulatzea dute kirol, kea eskaintza, eta haurren erabakimen eza alde. Otzan eskola, lehiakortasuna itoko duena. ■